



# **Euskadiko negoziatio kolektiboaren balantzea 2008**



**CRL**  **LHK**

lan harremanen kontseilua consejo de relaciones laborales

**Lan Harremanen Kontseilua**

***Euskadiko negoziazio kolektiboaren balantzea 2008***


**2009ko otsaila**

**Sarrera**

Txosten honetan 2008 urterako burutu den negoziazio kolektiboaren ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditugu, "negoziatio kolektiboaren egitura" diogunean, EAEn eragina duten eta 2008rako espresuki indarrean dauden hitzarmen kolektiboen multzoa esan gura dugularik.

Lan honetan ez ditugu aintzat hartu ez funtzionarioentzako lan baldintzei buruzko akordioak eta ez estatutuaz kanpoko itunak ere.

Lehendabizi, negoziatio kolektiboaren egiturak, hau da, EAEn aplikatzen diren hitzarmen kolektiboan multzo antolatuak dituen oinarritzko bereizgarri nagusiak gaingiroki deskribatuko ditugu eta, egitura horretatik abiatuz, 2008rako ondoreak izan dituen negoziatio kolektiboa aztertuko dugu. Deskribapen horren berri adierazteko, ukitutako langile kopuruak erabiliko ditugu.

**Negoziatio kolektiboaren egitura**

Honi dagokionez, esan behar dugu bi urtean behin Lan Harremanen Kontseiluak negoziatio kolektiboaren egiturari buruzko informazioa eguneratu egiten duela, hau da, EAEn aplikatzen diren hitzarmenen multzoa deskribatu eta hitzarmen horiek ukitzen dituzten pertsona kopuruak zehazten dituela. Eguneratze hauetako azkena 2008 urtean egin da.

Hala, eskura ditugun azken datuen arabera, EAerako negoziatio kolektiboak guztira 642.636 langile ukitzen ditu.

- Negoziatio kolektibo honen zatirik handiena (%97) sektore pribatuari dagokiona da.
- EAerako negoziatio kolektiboaren multzoaren barruan, EAEn bertan negoziatu eta erregistratu diren hitzarmenak daude, baita, gure erkidegoan berariazko hitzarmena ez duten sektoreei eta hemen lantokiak dauzkaten enpresei eragiten dieten Estatuaren eremuko hitzarmenak ere. Edozertara ere, negoziatio kolektiboaren zatirik handiena EAEn bertan egiten da, hitzarmenek ukitutako pertsonen bidez adierazita, %79a, hain zuzen ere.
- Era berean, gehiengo (%81) sektoreen eremuko hitzarmenek arautzen dute. Lurralde eremu desberdinetan, ostera, sektoreko eta enpresako negoziatioaren garrantzia desberdina izaten

da. Hala, adibidez, Gipuzkoan sektoreko negoziazioa argi eta garbi nagusitzen da ((%89) eta Araban, berriz, enpresako negoziazioak garrantzi handia dauka (%33).

Jarraian jarri dugun koadroan EAEn aplikatzen diren hitzarmen guztiei buruzko informazio osatua erakusten da.

**EAEn aplikatzeko hitzarmen kolektiboak eta hitzarmenok ukitutako pertsonak**

	Sektorea		Enpresa		Guztira	
	Hitz.	Lang.	Hitz.	Lang.	Hitz.	Lang.
Araba	21	49.128	154	23.883	175	73.011
Bizkaia	48	209.078	296	38.462	344	247.540
Gipuzkoa	44	142.367	98	16.974	142	159.341
Lurralde artekoak	8	20.697	27	7.748	35	28.445
EAEn erregistratuak	121	421.270	575	87.067	696	508.337
Estatuaren eremua	106	101.109	224	33.190	330	134.299
<b>GUZTIRA</b>	<b>227</b>	<b>522.379</b>	<b>799</b>	<b>120.257</b>	<b>1.026</b>	<b>642.636</b>


Hitz.: Hitzarmenak; Lang.: Ukitutako langileak

EAEko negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko informazio gehiago jasotzeko, ikus LHKren web orrian: [http://www.crl-lhk.org/e\\_estructura.htm](http://www.crl-lhk.org/e_estructura.htm)

**2008 urterako negoziazioaren bilakaera**

Jarraian erantsi dugun grafikoak erakusten duenez, 2008 urtean zehar, langile guztien %50,8a ukitzen zuten hitzarmen kolektiboak berriztatu behar ziren. Portzentaje hau beste urte batzuetakoa baino txikiagoa izan da (2007an %69,4 izan zen eta 2006an %65,6), batez ere, 2008rako indarrean aurretiaz zeuden sektoreko hitzarmenek euren baitan langile multzo handia biltzen baitute (hiru lurraldeetako eraikuntzaren hitzarmenak 45.221 langile hartzen ditu, Bizkaiko ostalaritzak 16.980, Gipuzkoako siderometalurgiak 53.303 eta Estatuaren eremuko kimikarenak 12.365).

**2008ko negoziazio kolektiboaren bilakaera**




Esan behar da urte honetan ere negoziazio prozesuak zailak izan direla. Hori frogatzeko, 2008ko

hamabi hiletan langileen %19,7arentzako akordioak soilik erregistratu direla esatea baino ez dago, hau da, negoziatu behar zenaren erdia ere ez da negoziatu. Hori bai, kontuan hartu behar da badirela zenbait hitzarmen dagoeneko sinatu direnak edota berehala sinatzeko daudenak; eta hitzarmen horiek 2009ko lehen hilabeteetan erregistratuko direla aurreikus daiteke.

Honela, 2008 urtea amaitu denean, langileen %31,1ak euren hitzarmena berritzatzeko zeukaten. Hala ere, dagoeneko sinatuta dauden eta 2009ko lehen hiletan erregistratuko diren hitzarmenak, eragin mugatuko itunak eta herri administrazioetako lan araudiko langileen hitzarmenak sartzen baditugu (azken hauen baldintza ekonomikoak mahai orokorretan edo protokoloetan ezartzen dira), portzentaje hori %13raino jaisten da.

### 2008rako negoziazio kolektiboaren bilakaera eremu funtzionalen arabera




2008ko abenduaren 31 arte erregistraturiko hitzarmenak aintzat hartu eta enpresa zein sektoreko eremu funtzionalen arabera sailkatuz ikusiko dugunez, aurreko urteetan ez bezala, enpresako eta sektoreko hitzarmenetan berriztatu gabe dagoen zatia antzekoa da. Hala, aurreko grafikoan ikus daitekeenez, sektoreko hitzarmenek ukituriko pertsonan %31,1ak hitzarmena berriztatu gabe dauka urtea amaitzean. Enpresaren eremuan, halaber, portzentaje hau %30,7 da. Abiapuntua, ordea, oso desberdina zen. 2008an zehar berriztatu diren enpresako hitzarmenen eraginpeko langileen portzentajea sektorearen eremuan erregistratu direnenaren bi halako da. Sektorearen eremuan nabarmendu behar da hitzarmen kopuru handi bat ez dela berriztatu orain dela lau urte baino luzeagotik hona: EAEn erregistratzen diren sektoreko 121 hitzarmenetako 23, berriztatzeko daude 2005 baino lehenagotik. Hitzarmen hauek 16.806 pertsona ukitzen dituzte, hau da EAEn erregistratzen den sektoreko negoziazio kolektiboaren eraginpeko langileen %4a.

2008ko abenduaren 31 arte eragin mugatuko sektoreko sei hitzarmen gordailatu ziren (Arabako eta Bizkaiko metala, Gipuzkoako eta Bizkaiko farmazia bulegoak, Gipuzkoako okindegiak eta Bizkaiko establezimendu sanitario pribatuak, alegia). Era berean, estatutuaz kanpoko zenbait enpresa itun ere gordailatu ziren, haien artean Arabako Mercedes, Bizkaiko *Galletas United Biscuits*, Basauriko Sidenor eta *Acería Compacta de Bizkaia*. Hitzarmen eta itun hauek guztiek gutxi gora behera 87.000 pertsona

ukituko lituzkete, hau da, hitzarmen kolektiboa eduki zezakeen biztanleriaren %13,5a.

Negoiazio kolektiboaren bilakaera lurralde eremuen arabera aztertzen badugu, jarraian aurkezten dugun koadroan erakusten den egoera aurkituko dugu.

## 2008rako negoziazio kolektiboaren bilakaera lurralde eremuen arabera



Oro har, ikus daitekeenez, atzerapenik handiena lurralde arteko hitzarmenetan gertatu da, irakaskuntza pribatuaren eta ikastolen sektoreetako hitzarmenetan adostasunik lortu ez delako. Bizkaian 2008 urtea amaitzean langileen %38,3ak hitzarmena berriztatu gabe zeukan eta Araban %42,5ak; hala ere nabarmendu behar da lurralde bi hauetako siderometalurgiaren industrian eragin mugatuko itunak daudela. Gipuzkoan, 2008 hasi zenean, hitzarmena berriztatzeko zuten pertsonen portzentajea txikiagoa zen (%33) eta urtea amaitu denean, berriztatzeko zeuden hitzarmenek %19,6a bakarrik ukitzen zuten. Dena dela, oro har, hitzarmen hauek ez dira aspaldi luzean berriztatu. Azkenik, ikus daitekeenez, berriztatzeko dagoen negoziazio kolektiboa txikiagoa da EAEn eragina duten Estatuaren eremuko hitzarmen kolektiboetan (%16,9, ukituriko pertsonen bidez adierazita).

### 2008 urtearen amaierako egoera


Laburbilduz, 2008 urtearen amaiera, eskura dauzkagun azken datuen arabera (2008ko abenduaren 31 arte erregistratutako hitzarmenak), berriztatutako hitzarmenak 661 ziren guztira eta 443.020 pertsona ukitzen zituzten. Pertsona hauen %81a sektoreko hitzarmenen babespean dago eta gainerako %19a enpresako hitzarmenen babespean. Ekitaldia amaitzean beste 365 hitzarmen berriztatzeko zeuden, 199.616 pertsona ukitzen zituzten hitzarmenak, alegia.

Sektorearen eremuan negoziazio kolektiboak duen egoera hobetu egin da 2007ren aldean eta honek eragina izan du azken emaitzari begira. Hala ere, Bizkaiko eta Arabako siderometalurgiaren hitzarmenen egoerak eruz baldintzatzen du oraindik ere hobekuntza hau. Era berean, oro har gertatu den hobetze hori, zenbait sektore garrantzitsutan (zuraren industrian, irakaskuntza pribatuan etab.) izan den akordiorik ezak neutralizatzen du partzialki.

Enpresaren eremuko egoeraren balorazio zehatzagoa egin ahal izateko, erregistratu ez diren enpresetako itunak eta akordioak sakonkiago aztertu beharko lirateke. Zentzu horretan, neurri handiko zenbait enpresetan euren negoziazio kolektiboa estatutuaz kanpoko itunen bidez eratu dute, adibidetzat hartu ahal ditugun Arabako Mercedesen, Bizkaiko *Acería Compacta*-ren eta Basauriko Sidenor-en kasuetan bezala. Haatik, enpresetan lortzen diren itun guztiei buruzko informaziorik ez daukagu eta, horregatik, momentu honetan ezin diogu ekin azterketa horri behar besteko bermea daukagularik. Itun hauek kontuan hartu gabe, beraz, urtearen amaieran hitzarmena berriztatzeko duten pertsonen portzentajea %31,1 izan da, hau da, iazkoaren antzerako portzentajea (%31,5) eta 2006koa (%41,0) baino txikiagoa.

### 2008rako negoziazio kolektiboaren emaitzak Soldata igoerak

Globalki zenbaturik, 2008rako itundutako batez besteko igoera %4,44 izan da. Gure erkidegoan erregistratu diren hitzarmenetako soldata igoera %4,97 izan da eta EAEn eragina duten Estatuaren eremuko hitzarmenetakoa %2,74. Era berean enpresako hitzarmenetan soldata igoera %3,62 izan da eta sektorekoetan %4,63, ondoren agertzen den grafikoan erakusten den legez. Honi dagokionez, aipatu egin behar da, sektoreko hitzarmenetan itundutako ordainsarien igoera, enpresako hitzarmenetan itundutakoa baino handiagoa bada ere, sektoreko hitzarmenetan itundutako igoerak, oro har, sektoreko gutxieneko ordainsarien gainean ezartzen direla, (taulen gainean, alegia), enpresako igoerak, berriz, normalean ordainsari handiagoen gainean ezartzen direlarik..



Oro har, 2008rako adostu diren soldata igoeretan gorako bilakaera txikia ikus daiteke, 2007rako itundutakoen aldean (%4,23). Goranzko joera hau, gainera, handiagoa izango zen, inflazioa urtearen amaieran geldotu den bezala geldotu ez balitz.

**2007 eta 2008rako itundutako soldata igoerak**

	Soldata igoera soldata berrikusteko klausularik gabe		Berrikusteko klausulen ondoreak		Soldata igoera guztira	
	2007	2008	2007	2008	2007	2008
Araba	3,40	4,12	1,13	-0,01	4,53	4,11
Bizkaia	4,00	5,01	0,28	-0,01	4,28	5,00
Gipuzkoa	3,90	5,25	0,03	0,00	3,93	5,25
Lurralde artekoak	4,77	4,43	0,00	0,00	4,77	4,43
EAEn erregistratuak	3,93	4,98	0,28	-0,01	4,22	4,97
Estatuaren eremua	2,62	2,82	1,67	-0,08	4,29	2,74
EAE guztira	3,64	4,46	0,59	-0,02	4,23	4,44

2008ko KPIren bilakaeraren arabera jarrita zeuden soldatak berrikusteko klausulei dagozkien egokitzapenak direla-eta, batez beste ehuneko bi ehunen ondore negatiboa dagoela kalkulatu dugu (-%0,02). Izan ere, inflazioa abenduan %1,4koa izan da, aurreikusitakoa (%2) baino txikiagoa, beraz. Aitzitik, 2008rako berriztatutako hitzarmenen %45,1ak (hitzarmen horiek arautzen dituzten langile guztien %32a ukitzen dituztenek) soldata berrikusteko klausula daukan arren, klausula horiek bakarrik kasu gutxitan aipatzen dute espresuki soldatak beheratzeko posibilitatea. Puntu honi dagokionez, ostera, lurraldeen arteko desberdintasunak esanguratsu samarrak dira. Hala, Gipuzkoan, negoziatzean batez ere iragandako inflazioa hartzen baita aintzat, soldatak berrikusteko klausulek ez dute ia eraginik



bat ere izan ekitaldi hau ixterakoan; Estatuaren eremuan, berriz, kontrakoa gertatzen da.

Bizkaiko eta Gipuzkoako hitzarmenetan 2008rako itundu diren soldata igoerak 2007rako itundutakoak baino handiagoak izan dira, Arabakoetan eta, batez ere, EAEn eragina duten Estatuaren eremukoetan ez bezala, hauetan oso jaitsiera handia gertatu baita.

### Lanaldia

Berrizatzen ari diren hitzarmenak, azken urteetan ikus zitekeen lanaldia murrizteko joera geldituz joan dira. Hala, ikus daitekeenez, lanaldia murrizten duten hitzarmenen portzentajea handi samarra bada ere (%25,8), aurreko urteetako baino txikiagoa da (zehazkiago, 2007an portzentaje hau %29 izan zen).

#### Lanaldia murriztea erabaki zuten hitzarmenak

	Lanaldia murriztea erabaki zuten hitzarmenen portzentajea 2007 eta 2008an	
	2007	2008
Araba	42,5	36,9
Bizkaia	32,2	28,6
Gipuzkoa	37,7	35,8
Lurralde artekoak	35,3	42,1
EAEn erregistratuak	36,3	32,8
Estatuaren eremua	15,5	12,8
EAE guztira	29,0	25,8

Era berean, itundutako lanaldi murrizketek ere gero eta txikiagoak izateko joera dutela ikus daiteke. Zehazkiago esanda, 2008an murrizketa 1,5 ordukoa da batez besteko haztatuan eta EAEn erregistratutako hitzarmenak soilik kontuan hartuz gero, 1,8 ordukoa (2007an murrizketa hauek 2,2 eta 2,5 ordukoak izan ziren hurrenez hurren).

#### Itundutako lanaldiaren murrizketa (urteko orduak)

	2004/2003	2005/2004	2006/2005	2007/2006	2008/2007
Araba	6,0	4,5	4,2	3,9	1,6
Bizkaia	7,3	7,1	3,2	3,1	1,5
Gipuzkoa	8,0	7,1	3,4	1,1	1,6
Lurralde artekoak	1,7	1,0	7,1	3,3	9,7(*)
EAEn erregistratuak	6,9	6,1	3,6	2,5	1,8
Estatuaren eremua	2,9	2,2	1,2	1,1	0,6
EAE guztira	6,0	5,0	2,9	2,2	1,5


(\*) Eskola jantoki eta garraio monitore taldeek murrizketa handiak izan dituzte, sektore publikoarekin parekatu baitira, 35 orduei dagokienez.

Berrizatutako hitzarmenetan itundutako lanaldia dena delakoa izanik, benetan aplikatzen den lanaldia ezagutzeko hitzarmen kolektibo guztiak, hau da, berrizatuak eta berrizatu gabek, kontuan hartu behar dira. Berrizatu gabeko hitzarmenen kasuan, kontuan hartzen dugun lanaldia negoziaturiko azkena da.


Hala, lanaldiaren murrizketa urteko ordu batekoa izango litzateke; eta EAEn erregistratutako hitzarmenen kasuan ere murrizketa ordu batekoa izango litzateke.

Jarraian aurkezten dugun grafikoan, EAEn eragina duten hitzarmenetako lanaldi aplikagarria erakusten da, lehenago aipaturiko irizpideen arabera erakutsi ere, lurralde eremu eta eremu funtzionalen sailkaturik.

**Aplikatzeko lanaldia EAEko hitzarmen kolektiboetan**



**Aplikatzeko lanaldia EAEen erregistratutako hitzarmenetan**



Aurreko grafikoetan erakusten denez, aplikatzeko lanaldiak zertxobait behera egiten du ia eremu guztietan, Arabakoan eta EAEen eragina duten Estatuaren eremuan izan ezik. Murrizketarik handienak lurralde arteko eremuan gertatu dira: hiru orduko murrizketa, hain zuzen ere.

**Aldaketak egituran**

Negoiazio kolektiboaren egiturak zenbait aldaketa izan ditu, 2008 urtean sektoreko eta enpresako hitzarmen berriak agertu direlako. Besteak beste, Estatuaren eremuko kanpoko prebentzio zerbitzuen sektoreko hitzarmena sinatu zen.

**Lan gatatzak**

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak emandako datuen arabera, 2008 urtean zehar EAEen 232 greba erregistratu dira guztira; greba hauetan parte hartu dutenak 46.492 izan dira eta haien ondorioz guztira lan egin gabeko 73.769 lan egun gertatu dira. Zenbaki hauetatik atera daitekeenez, greba kopuruak 2007 urtearen aldean gora egin badu ere, alderantziz gertatu da parte hartzaileen kopuruari (-%11,4) eta lan egin gabeko egunei (-%34,4%) dagokienez. Oro har, grebak gertatu diren enpresetako langileen %34ak jasan du greba horien eragina.

Berriz ere, gainerako guztien artean nabarmentzen den eragilea negoziazio kolektiboari dagozkion desadostasunak izan dira. nahiz eta "Beste arrazoi batzuk" taldean sailkatu ditugun kausak ere

nabarmenki igo diren. 2008ko greben %48a, parte hartzaileen %57a eta lan egin gabeko egunen %65a hitzarmen kolektiboaren negoziazioa adostasunik ezari zor zaizkio. Arrazoi honegatik gertatu diren greben kopurua ez da ia aldatu aurreko urtearen aldean eta, aldiz, bai parte hartzaileen eta bai lan egin gabeko egunen kopuruak nabarmenki jaitsi dira.

Beste alde batetik, esan behar da 2008an negoziazio kolektiboko adostasunik ezagatik gertatu diren 111 grebetatik 100 enpresaren eremukoak izan direla eta hemen biltzen direla horrelako greben eraginpeko pertsonen %82a eta lan egin gabeko egun guztien %88a. Aurreko urtearekin alderaturik, beraz, igoera handia izan da, orduan enpresako grebek euren baitan arrazoi horregatik lan egin gabeko egunen %71 eta parte hartzaileen %58a biltzen baitzuten. Ekonomia sektoreen artean negoziazio kolektiboagatik egindako greben eraginik handiena zerbitzuen sektoreak jasan du, bertan 70 greba gertatu baitira, langileen %82a eta lan egin gabeko egunen %88a bertan sartzen direlarik.

### Lan grebak zioen arabera

	Greba kopurua			Parte hartzaileak			Lan egin gabeko egunak		
	2007	2008	ald. %	2007	2008	ald. %	2007	2008	ald. %
<b>Negoiazio kolektiboa</b>	108	111	2,8	36.350	23.659	-34,9	101.489	48.031	-52,7
<b>Beste arrazoi batzuk</b>	96	121	26,0	10.142	17.524	72,8	11.008	25.738	133,8
<b>Guztira</b>	204	232	13,7	46.492	41.183	-11,4	112.497	73.769	-34,4

Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila


### Negoiazio kolektiboaren 2009rako aurreikuspena

2008 urtea hasten denean dagoeneko berrizaturik dauden hitzarmenek (hainbat urteko indarraldikoek), negoziazio kolektiboaren babesean dauden pertsona guztien %41,8a hartzen dute euren eraginpean; gainerako hitzarmenak, aldiz, berrizatzeko daude. Datuek erakusten dutenez, beraz, berrizatu gabe dauden hitzarmen kopurua 2008an zegoenaren antzekoa da. Portzentajea handia da, baina ez du eragin berbera eremu guztietan.

Hala, ondorengo grafikoan ikus dezakegunez, 2009 urtea hasten denean, sektoreko eremuko langileen %59,5ak bere hitzarmena berrizatzeko dauka eta enpresako hitzarmenetan, berriz, halako egoeran daudenak %52,2 dira. Azpimarra daiteke, halaber, EAEn soilik garatzen den sektoreko negoziazioari berariaz dagokionez, portzentaje hura handixeagoa dela, %63,6a, alegia. Esan behar da, era berean, 2009rako indarrean dauden sektoreko estatutuaz kanpoko itunak (Bizkaiko eta Gipuzkoako farmazia bulegoak, Arabako eta Bizkaiko siderometalurgiaren industria eta Gipuzkoako okindegiak) multzo horretatik kenduko balira, portzentaje hori %44raino jaitsiko litzatekeela.

Lurralde eremuei dagokienez, lurralde artekoan, hitzarmena berrizatzeko duten langileen portzentajea %80,9raino heltzen dela ikus daiteke, Araban %62,4koa eta Bizkaian %82koa direlarik. Honi dagokionez, kontuan hartu behar dugu lurralde bi hauetan siderometalurgiaren eragin mugatuko hitzarmenek 77.000 pertsona inguru ukitzen dituztela. Gipuzkoan eta Estatuaren eremuan, aldiz, berrizatzeko dauden hitzarmenen portzentajeak %28 eta %43,1 dira, hurrenez hurren.

**Negoiazio kolektiboaren 2009rako aurreikuspena**



2009rako indarrean dauden hitzarmen hauetan itundu diren emaitzei dagokienez, berriz, azpimarragarria da batez besteko soldata igoera haztatua %2,56koa dela.

	2009rako soldata igoerak(*)
Araba	2,95%
Bizkaia	2,84%
Gipuzkoa	2,49%
Lurralde artekoak	3,01%
EAEn erregistratguak	2,65%
Estatuaren eremua	2,32%
Guztira	2,56%

(\*) 2008ko abenduaren 31 arte erregistratuta eta 2009an indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan

